

5

Lurraldearen antolamenduan hizkuntza irizpidea kontuan hartzeko ibilbidean nazioarteko esperientziak

Paul Bilbao Sarria

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUAren idazkari nagusia

pbilbao@kontseilua.eus

Sarrera-data: 2014-04-15 / Onartze-data: 2014-06-05

Laburpena: Euskal Herrian bezalako egoeran dauden beste hizkuntza-komunitate batzuen errealitatea ezagutzea ohikoa da gure inguruan, nahiz eta jakin hizkuntzaren berreskuratze-prozesu bakoitza desberdina dela; interesgarria da Euskal Herritik kanpo gertatzen ari denaren berri izatea, are gehiago, hemen landuko dugun gaia berri samarra delako. Lurraldea eta Hizkuntza gaia harturik, 2014ko urtarrilean ospatu zen jardunaldietan, euren esperientzia erakusteko aukera izan zuten gure gonbidatuek, eta haien ekarpenen berri emango du artikulu honek, Åland Uharteetako, Flandriako eta Galeseko, hain zuzen.

• **Gako-hitzak:** *lurralde-antolakuntza, hirigintza, hizkuntza-komunitatea.*

Abstract: It is normal here to learn about the reality of other speech communities that are in a situation like that of the Basque Country, even though one is aware that each language revival process is different; it is interesting to obtain news about what is going on outside the Basque Country, particularly because the issue we are working on here is relatively new. In the seminars that took place in January 2014 dealing with Territory and Language, our invitees had the chance to present their experiences, and this article will be reporting on their contributions dealing with the Åland Islands, Flanders and Wales, in fact. • **Key Words:** *spatial planning, town planning, linguistic community.*

Hizkuntzaren aferan ere Euskal Herrian ohitura handia dugu geure egoeran dauden beste hizkuntza-komunitate batzuek zeinek bere garapenerako baliatu izan dituen estrategiak aztertzeko, hortik praktika onak geurera ekarri ahal izateko. Egia da, bai, hizkuntza gutxiagotuen berreskurapen-prozesu guztiak desberdinak direla, eta hizkuntzak gizartearen garapenean duen zehar-lerrotasuna kontuan hartuta, ezinezkoa dela modu berean aplikatzea aipatu praktikok. Halere, besteen estratēgiei erreparatzea gurea definitzeko lagungarria dela uste dugu.

Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldietan ere interesgarria iruditu zitzaigun beste hizkuntza-komunitate batzuetako arnasmuneen garapenerako eta hedapenerako zer-nolako estrategiak jarri dituzten abian aztertzea. Are gehiago, interesgarria iruditu zitzaigun zer-nolako arazoei egin behar izan dieten aurre aztertzea.

Horrexegatik hiru errealitate arras desberdin aukeratu genituen, zeinek bere ezaugarri propioak izanik, euskararen arnasmuneen garapenerari ekarpen interesgarriak egingo zizkiotelakoan: Åland Uharteak, Flandria eta Gales.

ÅLAND UHARTEAK

I

Askotan izan dugu ikasgai Finlandiako hizkuntza-kudeaketa soziolinguistikari edota hizkuntza-eraentzari buruzko ikastaroetan. Mendeetako jazarpen linguistikorearen ondoren, finlandieraren berreskurapenen osorako eta suediera hitzunen eskubideak bermatzeko pertsonaltasun printzipioa nagusitu zen.

Halere, Lurraldea eta Hizkuntzari buruzko jardunaldiei begira¹ ez genuen Finlandian gertatzen denaren berri eman nahi; Åland Uharteetan gertatzen ari dena, baizik. Eta horretarako Elisabeth Naucłér politikaria ekarri genuen geurera, gatazken konponbidean eskarmentu handiko legelaria.

Oso bitxia egin zitzaigun Elisabethek² bere hitzaldiaren nondik-norakoa laburtzeko bidalitako materialaren artean Åland Uharteak iragaritzeko eskuorri bat aurkitzea. Akaso, are bitxiago eskuorri horretan agertzen den Åland Uhartei buruzko definizioa: *Åland erregio desmilitarizatua eta suediera-hitzuna da eta nazioarteko bermeen bidez babestutako auto-gobernurako eskubidea du*. Interesgarria, oso, aipatu definizioa, izan ere, haien lurraldearen egiturazko ezaugarritzat hartzen dute berezko hizkuntza.

Åland Uharteak suedieraren arnasmune izaten jarraitzea ezin uler daiteke uharte horietako eta Finlandiako zein Suediako historia garai-kidean gertatutakoa kontuan hartu gabe. Mendeetan Åland Uharteak

**Hizkuntzaren
aferan ere Euskal
Herrian ohitura
handia dugu
geure egoeran
dauden beste
hizkuntza-
komunitate
batzuek zeinek
bere
garapenerako
baliatu izan
dituen
estrategiak
aztertzeko, hortik
praktika onak
geurera ekarri
ahal izateko.**

**Hiru errealitate
arras desberdin
aukeratu
genituen, zeinek
bere ezaugarri
propioak izanik,
euskararen
arnasguneen
garapenari
ekarpen
interesgarriak
egingo
zizkiotelakoan:
Åland Uharteak,
Flandria eta
Gales.**

Suediaren mende kokatu ziren, harik eta 1809an Errusiaren esku geratu arte. Kontuan hartu behar dugu Åland Uharteek kokapen estrategiko garrantzia dutela, besteak beste, San Petesburgori edota Stockholmi begira duelako. 1854an Frantziak eta Britainia Handiak Errusia gailendu zuten, eta horren ostean Parisko Ituna sinarazi zioten irla horiek berriz ere konkistatuko ez zituela aginduz. Hartara, lehen aldiz Åland Uharteak nazioarteko agendan kokatu ziren.

Finlandiak 1917an lortu zuen independentzia, baina independentziari buruzko eztabaida hasi eta berehala, Åland Uharteetako biztanleek ere ekin zioten eztabaida bati. Argi zuten ez zutela Errusiako parte izan nahi, ezta errusiera-hiztunak ere; eta Finlandiako parte ere ez, ezta finlandiera-hiztunak ere. Herritarren arteko galdeketa egin eta biztanleen %96k Suediako Erresumara bueltatzeko gogoia adierazi zuen. Eskaera egin zioten Suediako erregeari, eta oso baikorki hartu zuen Åland Uharteetako herritarren eskaera, baina ez zen ezer gertatu. Izan ere, oso garai arriskutsuak ziren eta halako erabaki batek ondorioak ekar litzake. Hartara, ez zen ezer gertatu Frantziako Errepublikako Lehen Ministro George Clemenceauk Lehen Mundu Gerrari buruzko Itunean horri buruzko aipu apalen bat jaso arte

Egia da Finlandia independente izendatu zenetik, hasieratik bertatik, jaso zuela Estatu elebiduna izango zela. Ez zen jasotzen suediera gutxiengo baten hizkuntza zenik, nahiz eta *de facto*, gutxiengoaren hizkuntza izan. Halere, kontuan hartu behar da suedieraren gutxiengo horretako kideek botere handia zutela Gobernuan. Horientzat oso garrantzitsua zen Åland Uharteak linguistikoki bere horretan mantentzea. Hortaz, Finlandiako gehiengoak konbentzitzen saiatu ziren Estatu elebiduna eratu behar zela, hain zuzen ere, munduari erakutsi ahal izateko Åland Uharteak eroso koka zitezkeela Estatu berriaren barruan. Segurtasun-arazoa ere izan zitekeela azpimarratu zuten eta, ondorioz, afera Nazioen Ligara eraman zuten 1921ean.

Nazioen Ligak erabaki egin zuen Åland Uharteak Finlandiaren su-birautzaren mende egongo zirela, baina bermatu egin beharko zela Åland Uharteetan suediera hizkuntza eta kultura nagusi izango zirela.

Azpimarratu behar da Finlandiari eta Suediari hiru eguneko epea eman zitzaiela Nazioen Ligak proposatutako irtenbidea berresteko, eta Åland Uharteetako herritarrek ez zuten iritzia ematerik izan. Hortaz, Finlandiak eta Suediak onartu egin uzten Åland Uharteetako herritarrek atzera bota zuten autonomia. Halaber, Åland Uharteetako Autonomia Legeari zenbait paragrafo erantsi zitzaizkion, hain zuzen ere, Bermeen Legea izenekoa.

Bermeen Legearen printzipio nagusia, besteak beste, hizkuntzari buruzkoa izen zen: *Finlandiak konpromisoa hartu behar du Åland Uharteetako biztanleei haien hizkuntza eta tokiko ohitura suediarren biziraupena segurtatzeko eta bermatzeko, bai eta Åland Uharteetako Autonomia Legean honako berme hauek aurkezteko ere.*

Halaber, Nazioen Ligak zerrendatutako bermeen arabera Landstingak (autonomia gobernua) edota udalek ez dute zertan lagunduko suediera irakas-hizkuntza ez duen ikastetxerik. Estatuko ikastetxeetan suediera izango da irakas-hizkuntza. Horren karira, Naucler-ek azpimarratu nahi izan zuen berme horrekin ezin ondoriozta daitekeenik finlandiera bidezko irakaskuntza debekatu egiten dela. Aukera guztiak izan ditzake, beti ere ekimen pribatua baldin bada. Halere, ez da inoiz interes handirik egon horrelako eredu bat abian jartzeko.

Aipatu bermeetan beste murrizketa batzuk ere bazeuden, baina garrantzitsuena, zalantzarik gabe, bermeak beteko zirela egiaztatzeko prozedura zehatz bat abian jartzea izan zen. Horrela, Finlandiak Nazioen Ligari helarazi behar zion Åland Uharteetako gobernuak sinatutako bermeen inguruan egindako edozein eskaera edo kexa, eta beharrezkoa izanez gero, Hagako Nazioarteko Auzitegira jotzerik bazuen.

Murrizketa horien jatorria populazioan oinarritzen zen, izan ere, oso populazio txikia zuten Åland Uharteek, eta horien bidez bermatu nahi zuten lurraldearen osaera etnikoa, bai eta finlandiar hiztunen inbasioa saihestu ere. Kezka zegoen Finlandiatik milaka herritar igaroko ote ziren Åland Uharteetara, lur-eremua erosi, industriak abian jarri, langile berriak eraman etab. Eta horrek guztiak irletako hizkuntza-egoera goitik behera aldatuko zuen.

Horrexegatik ere indar handia jarri zuten hezkuntzan, eta ondorioz, suediera da irakas-hizkuntza, nahiz eta finlandiera atzerriko hizkuntza gisa irakatsi. Are gehiago, Naucler-en arabera, Åland Uharteetara joandako familia finlandiarrek oso begi onez ikusi zuten irakas-hizkuntza suediera izatea.

Irakaskuntzaz haratago, suediera da administrazioen zein agintarien arteko hizkuntza, bai eta Estatuko administrazioekin harremanetan jartzen direnean ere.

1953an Åland Uharteetarako Autonomia Lege berria onartu zen. Ordurako Nazioen Liga desagertua zegoen, eta horrexegatik horren ordainetan “bizilekurako eskubidea” txertatu zioten Legeriari. Horren arabera bizilekurako eskubidea lortuko duzu, baldin eta, Finlandiako nazionalitatea izanik, bost urtez bizi izan bazara Uharteetan. Gainera, ez duzu inolako murrizketarik izango, alegia, lurra erosi ahal izango

**Åland Uharteak
arnasgune
izateari eusteko
arkitektura
juridikoa behin
eta berriz
aldatzen zutela.
Horrexegatik,
“bizileku
eskubidea”
lortzeko
suedieraren
ezagutza
egiaztatu behar
zen.**

**Beste Estatu
batzuek kopiatu
izan dute
Finlandiako eta
Åland
Uharteetako
eredua.**

duzu, zure enpresa abian jarri edota udal hauteskundeetan bozka eman. Berez, Åland Uharteetara bazoaz, lana lortu eta urte betera etxea erosi nahi baduzu, ez dago arazorik. Halakoetan baimena ematen dituzte. Haiiek ez dituzte biztanle berriak uxatu nahi, baina nolabaiteko seriotasuna erakutsi behar da. Finean, Åland Uharteek oso gune interesgarria izaten da Stocholm edo Helsinkiko herritarrek bigarren etxebizitza eros-teko. Halere, “bizilekurako eskubidea” eskuratuta, ez duzu bestelako baimenik behar ezertarako ere. Esan bezala, hori guztia Nazioen Ligaren desagertzearen ordainetan izan zen, ordutik aurrera ez zelako egongo 1921ean onartu ziren bermeen betetzeari jarraipenik emango zion erakunderik.

1993an “bizileku eskubidea” eskuratzeko beste baldintza bat ezarri zuen Hirugarren Autonomia Legeak, eta horrek erakusten du hizkuntza ardatza zela erabaki garrantzitsu guztietan, eta kosta ahala kosta, Åland Uharteak arnagune izateari eusteko arkitektura juridikoa behin eta berri aldutzen zutela. Horrexegatik, “bizileku eskubidea” lortzeko suedieraren ezagutza egiaztatu behar zen.

Beste adibide bitxi bat eskaini zuen Nuecler doktoreak: Jende guztiak uste du Åland Uharteetako gazteek ez dutela soldaduskara joan behar beren burua desmilitarizatutako gunetzat dutelako. Ez da horrela. Finlandiak ezin du bermatu armadan suedieraz hitz egingo denik, eta ondorioz, herritar horiei beren lurraldean aitortzen zitzaien eskubidea bermatze aldera soldaduskatik salbuetsi zituzten.

1993ko Legeak, beraz, hizkuntzari buruzko kapitulu berezitua du. Akaso, Elisabeth-ek gogoratu bezala, interesgarria da kontuan hartzea Lege hori ez dela Finlandiako Konstituzioaren zati bat; aitzitik, nazioarteko erabakiaren ondoriozko testua da. Finlandiako Konstituzioak Lege hori egongo dela zehazten du, baina ezer gehiagorik ez.

Egun pil-pilean dagoen integrazioa ez zen oinarria izan Legea onartutakoan. Suedieraren biziraupena zen Legearen oinarri nagusia. Aipatu Autonomia Legeak finlandiera erabiltzeko eskubidea ere aitortzen du, baina beti ere Estatuko erakundeak direnean. Halaber, Epaitegietan finlandierara itzulitako testuak jasotzerik ere badute herritarrek. Horrekin batera, Estatuko beste auzitegi batek dokumenturen bat finlandieraz iristen bada, herritarrari horren itzulpena helarazi beharko zaio.

Halere, hori guztia posible izan zen Finlandiako Konstituzioak berriaz zuelako jasoia Estatu elebiduna zela, finlandiera eta suediera zirela hizkuntza nazionalak eta ofizialak.

Askotan esan izan da Åland Uharteetako irtenbidea gutxiengoaren aldeko irtenbidea izan dela. Egia da, izan ere, orduan 22.000 biztanle

besterik ez zegoela uharteetan, baina gaur egun 28.000 biztanle dira, eta beraz, inguruko beste irla batzuetan gertatzen den kontrako joera demografikoa izan da.

Eta horrexegatik, Elisabethek galdera bat planteatu nahi izan zuen: “Irtenbide egokia izan al da?” Eta akaso gure gaiari lotzeko honako galdera egun beharko genuke: Estatu horretan gutxiengoa den komunitatearen biziraupena lur-eremu batean bermatzeko corpus juridiko egokia garatu al dute?

Elisabeth Nauclerek azpimarratu zuen orduan ez zutela nora begiratu, alegia, munduan ez zegoela inolako eredurik. Aitzitik, ondoren, beste Estatu batzuek kopiatu izan dute Finlandiako eta Åland Uharteetako ereduak. Halere, modu jasangarrian kudeatu zela iruditzen zaio. Åland Uharteetan eskubide kolektiboak izan zituzten oinarri. Finlandiako beste eremuetan eskubide indibidualetan oinarritu zuten hizkuntza-kudeaketa. Halere, arnaguneak bere horretan jarraituko zuela bermatzeko, hori ez zen nahikoa Åland Uharteetan. Eskubide indibidualetan oinarritutako hizkuntza-eraentzak ez zuen lortuko gaur egungo Åland Uharteetako egoera ahalbidetzea.

Eta, nola ez, hizlariak horrelako politika baten zilegitasunaz ere hausnartu nahi izan du. Horren populazio txikia izanik, horrelako babesik gabe hizkuntzak iraungo ez zuela berretsi du. Halere, gogorarazi nahi izan du oso garrantzitsua izan dela suediera beste Estatu bateko hizkuntza izatea, eta, noski, Suediako Erresumatik laguntza handia jaso dutela.

Halere, denak ez dira aldeko jarrerak. Finlandiako nazionalistek behin eta berriro aldarrikatu izan dute Åland Uharteetako biztanleriari pribilegioak ematen zaizkiola eta bertan bizi den gutxiengo finlandiarrari ere eskubide kolektiboak aitortu behar zaizkiola. Akaso, Katalunian egun entzuten ditugun aldarrikapen batzuk etorriko zaizkigu halakoak entzutean. Halere, Naucler-ek gogoratu nahi izan du giza eskubideen urraketarik ez dela egoten, eta aniztasuna ere presente dagoela Åland Uharteetan, alegia, ez dela irla isolatu bat. Egun 92 naziotako biztanleak daude eta 40 hizkuntza mintzo dira; hortaz, ez dira modu isolatuan bizi. Beraiek ez dute inor baztertzen, baina haien komunitatea babestu nahi dute; besterik ez.

Atrebentzia eta apaltasun handiz bada ere, nire ikuspegiak bat egiten du Elisabethek egindako irakurketarekin. Corpus juridiko egoki horrek ahalbidetu du, egun, Åland Uharteak arnagune izatea. Are gehiago, populazio berria egonik ere, horrek ez du eragin hizkuntza-egoeran. Adibide interesgarria, beraz.

Flandrian bi ereduak aplikatzen dira; pertsonaltasun-printzipioa Bruselan eta lurraldetasun-printzipioa gainerakoan. Horren ondorioz, hizkuntzaren garapena desberdina izan da eremua batean zein bestean. Lurraldetasun.

**Flandriak baliatu
egiten du
nederlandera
ezagutzeko
beharra lan bat
aurkitzeko
aukera errazteko.**

FLANDRIA

I
Arestian esan dugu soziolinguistikari edota hizkuntza-eraentza konparatuari buruzko ikastaroetan Finlandiako adibidea izaten dela pertsonaltasun printzipioa erakusteko eredu. Halaber, lurraldetasun-eredua irakasteko Belgika erabili izan ohi da.

Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldietara ere Belgikako Estatuaren hizkuntza-kudeaketa ereduak ekarri nahi izan dugu. Izan ere, Flandrian bi ereduak aplikatzen dira; pertsonaltasun-printzipioa Bruselan eta lurraldetasun-printzipioa gainerakoan. Horren ondorioz, hizkuntzaren garapena desberdina izan da eremua batean zein bestean. Lurraldetasun-printzipioa aplikatzeak ekarri du Flandriako eremu zabalenean hizkuntza hegemonikoa nederlandera izatea, eta hizkuntza horretan bizi den arnasmugak izatea.

Gaia sakonkiago azaltzeko Flandriako Parlamentuko eta Belgikako Senatuko kide Wilfried Vandaele izan genuen Donostiako jardunaldietan³. Nederlanderen garapena azaltzeaz gain, egun bizi dituzten arazoak ere mahai gaineratu zituen, hain zuzen ere, Belgikan nederlanderen arnasmugak den Flandrian gertatzen ari diren migrazio-mugimenduak eta horrek hizkuntzaren garapenean dituen ondorioak. Eta horrekin batera, hizkuntzaren garapena bermatzeko, Flandriako Gobernuak onartu dituen zenbait arauk beste auzitegi batzuetatik izandako erantzun desegokiak ere partekatu nahi izan ditu.

Halere, hori guztia ulertu ahal izateko, nahitaezkoa da hizkuntzen garapenari buruzko pare bat zertzelada aipatzea. 1830ean sortu zen Belgika, eta Flandriarrak gehiengoak izan arren, 1930era arte ez zen baimentzen unibertsitatean ikastaroak nederlandez ematea. Ofizialki, Konstituzioak herritarrei aitortzen die nahi duten hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Halere, belgikar gehienak flandriarrak izan arren eta nederlandez mintzo baziren ere, hizkuntza ofiziala frantsesa zen. Brusela da horren adibidea; historian zehar Flandriako hiria izan da, baina egun Flandriako lurrek inguratzen duten hiri frantses hiztuna da. Are gehiago, egun Bruselan biztanleen %88k ezagutzen du frantsesa, %30ek ingelesa, %23k nederlandera eta %28k arabiera.

1860 urtetik flandriarrek hizkuntza-eskubideak aldarrikatu izan dituzte, oso egoera makurrean bizi zirelako. Ikasleei ez zitzaien uzten nederlandez mintzatzen, ez eta jolastokian ere. Zigortu egiten zituzten. Hainbat herritarrek heriotz-zigorra izan zuten, auzitegian zer esan zen ulertu gabe.

Horrela, 1962an lau hizkuntza-eremuak zehaztu ziren: nederlanderen eremua Flandrian, frantsesaren eremua Valonian, alemaneraren eremua Alemaniako mugaren ondoan eta eremu elebiduna Bruselan.

Hizkuntza-eremuak, eta, ondorioz, hizkuntza-mugak ezartzeak lurraldetasun-printzipioa, *ius solis*, aplikatu zela esan nahi du. Ez zen pertsonaltasun-printzipiorik hautatu, *ius personae*.

Pertsonaltasun-printzipioaren arabera pertsonak ditu eskubideak eta berarekin eramaten ditu edonon bizi dela. Kasu horretan agintari publikoak pertsonaren arabera moldatu behar dira. Lurraldetasun-printzipioan, aldiz, eskualdeari ematen zaizkio eskubideak, eta, beraz, norbanakoak eskualdeko hizkuntzara moldatu behar dira.

Wilfried Vandaelek oso argi adierazi zuen lurraldetasun-printzipioa dela emaitzak ematen dituen bakarra, eta ondorioz, modu federalean antolatuta dauden hainbat Estatuk printzipio hori baliatzen dutela. Gainera, gogorarazi zuen Giza Eskubideetarako Europako Auzitegiak 1968an adierazi zuela printzipio horrek ez zuela bereizkeriarik eragiten.

Vandaelek oso irmoki defendatu zuen lurraldetasun printzipioa: Eskualde batek, gizarte batek, zenbait arau behar ditu, bai eta hizkuntza batek ere; eta herritarrentzat ona da hizkuntza hori erabiltzea gizarte horretan parte hartu nahi badute.

Horrekin batera, hizkuntza arnasteko guneak, *language breathing spaces*, ere behar ditugula azpimarratzen du Wilfriedek. Izan ere, horrek etxean bezala egotea ahalbidetzen digu, seguruago egoten laguntzen digu, gizarte-kohesioa bermatzen da, elkartasuna... Gizarte trinko bat eraikitzekeko elementu garrantzitsuenak garatzen ditu. Hartara, hizkuntza arnasteko gune horiek babesa behar dute.

Hizkuntza gizartea antolatzeko tresna gisa erabili beharko litzateke. Beti espero dugu pertsonen hizkuntza-baldintzak bete ditzatela, esaterako, lan-iragarkietan hizkuntza irizpide garrantzitsua da. Hartara, hizkuntzak eta arraza edota etnia erabat desberdinak dira; hizkuntza bat ikas daiteke.

Flandriako eta Belgikako araudiaren arabera, inor ezin da hizkuntzarenatik bereizi, baina hizkuntzaren ezagutza irizpide gisa erabili daiteke herritarrak motibatzeke. Flandriak baliatu egiten du nederlanderak ezagutzeko beharra lan bat aurkitzeko aukera errazteke. Wilfriedek arabera, jendea nederlanderak ezagutzeko eskatzea ez zaio lotzen soil-soilik hizkuntzari edo edota kulturari. Zerbait soziala ere bada. Herritarrek haien artean komunikatzeko eta elkar ulertzeko aukera badute, herritar horiek seguruago sentituko dira eta elkartasuna handituko da.

Hamarkada luzez iraun duen gatazka baten ondoren, Flandrian nederlanderak erabili behar da administrazio publikoetan, epaitegietan, hezkuntzan eta enpresetan. Kasu horietan guztietan nederlanderak hizkuntza hegemonikoa izatea bilatu izan da.

Bruselan bi hizkuntzak dira ofizialak eta langile publiko guztiek, mediku zein erizainek barne, bi hizkuntzak ezagutu behar dituzte. Halere, normalean frantsesez besterik ez dakite.

Halere, frantsesek Flandrian onartutako zenbait hizkuntza-irizpide edo arau Belgikako auzitegira eman izan dituzte, bai eta nazioarteko batzordeetara ere. Horrela, interesgarria da ikustea Flandriak hizkuntza-arnasgunean nederlandera hizkuntza hegemonikoa izan dela segurtatzeko garatu duen araubidea, bai eta Estatuko zein nazioarteko epaitegiek zein instituzioek jarritako mugak ere.

Justiziari dagokionez, Flandrian nederlanderaz egin behar dute, eta atzerritarrek hizkuntza ulertu ezean, interpretea eska dezakete.

Hezkuntzari dagokionez, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan nederlandera erabili behar da. Badira salbuespen batzuk, esaterako, eskola batzuek etorri berrien hizkuntzak ere baliatzen dituzte integrazioa sustatzeko. Halaber, badira bestelako mugiltze-ereduak ere, ingelesez eta frantsesez hain zuzen ere. Halere, oraingoz, salbuespenak dira.

Unibertsitateetan eta goi mailako irakaskuntzan nederlandera erabili behar da, baina azken boladan gero eta gehiago ari da ingelesa erabiltzen. Horrela nazioarteko ikasle gehiago gerturatuko dira eta Flandriako ikasleek aukera gehiago izango dute nazioarteko merkatuan. Holandan, esaterako, zenbait unibertsitatek ingelesa besterik ez dute erabiltzen; halere, hori ezinezkoa litzateke Flandrian. 2013an onartutako dekretu baten arabera, graduiko ikasketetan gehienez %6 izan daiteke beste hizkuntza batean, eta masterretan %35.

Eremu sozioekonomikoari dagokionez, Flandrian kokatutako enpresek nederlandera erabili behar dute langileekin ahozko zein idatzizko komunikazioetan, bai eta dokumentu ofizial guztietan ere. Bruselan nederlanderaz prestatu behar dituzte dokumentuak langile flandriarrentzat eta frantsesez frantses hiztunentzat. Halere, enpresek gero eta gehiago erabiltzen dute ingelesa.

Flandrian nederlanderaren erabilera behartzen duen legeari dagokionez, Europako Auzitegiak ez du begi onez ikusi 1973ko araudia, pertsonen eta zerbitzuen joan-etorri askea oztopatzen duelako. Horrela, Auzitegiaren arabera testuaren bi bertsio beharko lirateke, nederlanderaz eta beste hizkuntza batean. Hartara, 40 urteko legeria aldatu behar izan Flandriak.

Administrazio publikoan gobernuak, lurralde eta tokiko instituzioak nederlanderaz zuzendu behar zaizkie herritarrei 1966ko legearen arabera. Halaber, enpresa erdi-publikoek ere, garraio-bide-enpresek esaterako, halaxe egin behar dute. Herritarrek ere agintariekin nederlanderaz egin behar dute. Halere, egunerokoan, flandriarrak nahiko toleranteak dira eta besteen nahietara moldatzen dira. Errazki aldatzen dute hizkuntza, kortesiazko keinua delako. Halere, Vandaelek azpimarratu du

horrelakoetan herritarrek nahi dutelako izaten dela, ez, ordea, hori egin behar dutelako.

Administrazioari dagokionez, azpimarratzekoa da Bruselan eta Brusela inguruko Flandriar eremuko herrietan gertatzen dena. Bruselan bi hizkuntzak dira ofizialak eta langile publiko guztiek, mediku zein erizainek barne, bi hizkuntzak ezagutu behar dituzte. Halere, normalean frantsesez besterik ez dakite.

Batzuek diote hori dela logikoena, nederlandera mintzo diren herritarrek gutxiengoa direlako Bruselan. Halere, Vandaelek ez du uste hori egia osoa denik. Lehenik eta behin, Brusela Flandriako hiria izan zen, bigarrenik flandriarrak gehiengoa dira Belgikan, baina autodeterminaziorako bidean gehiengoari egin zioten uko. Egun, Belgikako gobernuak zein parlamentuak mekanismo ugari jarri du abian flandriar gehiengoak frantses gutxiengoa gailen ez dezan.

Dena dela, benetako arriskua Brusela ondoko, baina Flandria barruko, herrietan gertatzen ari da, eta horrek nederlandera duen lurralde-arnasgunean eragin handia izan dezake. Gero eta frantses hiztun gehiago ari dira Flandriako udalerrri eder, berde, lasai eta seguruetara hurbiltzen. Horietako batzuetan frantses hiztunek zenbait hizkuntza-eskubide lortu dute. Esaterako, dokumentu ofizialak edo lehen mailako hezkuntzan frantsesez jasotzeko eskubidea lortu dute. Flandriarrek uste zuten neurri horiek behin-behinekoak izango zirela eta denbora-tarte bat igarota desagertuko zirela. Frantsesek, aldiz, eskubide horiek betiko direla diote, eta gero eta presio handiagoa egiten dute. Flandriako zenbait udalerritan, egun, %50 baino gehiago da frantses hiztuna, eta esan bezala, zenbait eskubide aitortzen zaie hizkuntza horretako hiztunei. Udalerrri horiek “hizkuntza-erraztasuna duten udalerrriak” edo *municipalities with language facilities* dira.

Etxebizitza-politiketan, Flandriak etxebizitza soziala alokatu nahi duten etorkinei nederlandera ikasteko eskatzen die. Horrela, kontratuan zer jartzen duen uler dezakete (eskubideak eta betebeharrak), eraikin bateko segurtasun-arauak uler ditzakete eta auzokideekin zein agintariek komunikatu daitezke. Hori bermatzeari begira Flandriako Gobernuak doako nederlandera ikastaroak eskaintzen die.

Belgikako frantses komunitatearen gobernuak eta Giza eskubideen Aldeko Ligak Belgikako Auzitegi Konstituzionalera jo zuten legea atzera botarazteko, baina Auzitegi horrek legea egokia zela ondorioztatu zuen. Nazio Batuen Erakundearen Arrazakeriarengatik Bereizkeriaren Aurkako Batzordeak, aldiz, ez zuen bat egin lege horrekin, eta kezka agertu nahi izan zuen

**Belgikan
normalean
gutxiengoak
babesteko
erabiltzen diren
tresnak aplikatu
behar izan
zaizkio
gehiengoari.**

Vandaelek azpimarratu nahi izan du nederlandera ikasteko eskatzen zaiela herritarrei, baina ez zaiela azterketarik egiten. Udalerrri batzuek egin izan dute, baina Vandaelerentzat hori bai izango litzateke herritarrek diskriminatzea. Nederlandera ikasteko esfortzua egitea, aldiz, ez.

Etxebizitzaren eremuan “norberaren eskualdean/ingurunean bizi” delako legeak dio etxebizitzaren merkatu bortitza pairatu duten udalerrietan (308tik 69) eskualde horrekin lotura duten herritarrek lehentasuna izan beharko luketela etxebizitza eskuratzeko: urteetan daramate bertan bizitzen, bertan egiten dute lan, umeak bertako eskolara eramaten dituzte... Horrela gazteei beraien eskualdean etxea erosteko aukera eskaini zaie. Kontuan hartu behar da etxebizitzaren merkatu bortitza pairatu duten eskualdeetan hamar urteetan prezioak laukoiztu edo boskoiztu dira. Bruselako herritarrek etxebizitzak erosten hasi ziren kostaldean eta bertako gazteek ez zeukaten aukerarik prezio horiei aurre egiteko. Gainera, kostaldeko etxebizitza asko bigarren etxebizitzetaz bete ziren.

Horrek guztiak ondorio larriak izan zituen eskualdearen garapenean. Batetik, hizkuntzan ondorio zuzena zuen, eta bestetik, jende gazterik ez zen bizi. Ondorioz, afera sozial bati erantzuteko jarri zuten abian lege hori.

Belgikako Estatu Kontseiluak begi onez ikusi zuen aipatu legea. Frantsesek beste behin jo zuten auzitegira, eta Europako Auzitegiak ez zuen begi onez ikusi araudia; ondorioz, Belgikako Auzitegi Konstituzionalak baliogabetu egin zuen aipatu legea, eta atzeraeraginkortasuna aplikatzeko ebatzi zuen.

Egun, Flandriako Gobernuak legea moldatzen saiatzen ari da eta eskualdearekin lotura izateaz gain, diru-sarrera eskasak izan beharra jarritzea pentsatzen ari dira. Horrek ez luke Europako debekua ekarriko.

Vandaelek aipatu du frantsesek arrazistatzat jo izan dituztela araudi horiek, eta berak desadostasuna agertzen du. Arrazakeria egoteko nazionalitatearen edo etniaren arabera baldintzak egon beharko lirateke. Hizkuntza bat edonork ikas dezake, ez da berezko zerbait; hortaz, lurralde bateko berezko hizkuntza-hemegonia bermatzeko halako neurrietan inori ez zaio aterik ixten, baina lurralde horretako hizkuntzara egokitze eskatzen zaie.

Gainera, horrelako araudiak beste lurralde batzuetan ere garatzen dela gogoratu du. Esaterako, Valonian bertan ere etxebizitza politikaren barruan *la priorité communale* izeneko araudia dute.

Horrekin batera, Flandriara bizitzera doazen eta udaletik oinarritzko dirulaguntza bat jaso nahi duten herritarrek nederlandera ikasteko ahalgina egin behar dute. Flandriako Gobernuak doako ikastaroak eskain-

tzen ditu eta nahitaez hartu behar dute parte. Arau horren karira ere Europako Batzordeak galdera egin zion Flandriako Gobernuari. Gobernuak motibazioa lantzeko modu bat zela erantzun zion. Oinarrizko soldata jasotzen zuten pertsonen lana bilatzeko prest egon behar zutela uste zuten udalek. Alta, “prestutasun” hori egiaztatzeko irizpide desberdinak egon badaitezke ere, udal horientzat nederlandera ikasteak prestutasuna erakusten du.

Ondorio gisa, Wilfried Vandaelek azpimarratu nahi izan du azken 150 urteetan hainbat arau eta lege onartu direla Flandrian Belgikako gehiengoaren hizkuntza den nederlandera-hiztunek frantses hiztunek dituzten eskubide berdinak erdiesteko. Hortaz, Belgikan normalean gutxiengoak babesteko erabiltzen diren tresnak aplikatu behar izan zaizkio gehiengoari.

Lurraldetasun-printzipioa hautatu zuten, horrek bermatuko zuelako Flandrian hizkuntza hegemonikoa nederlandera izango zela, eta horrela, nederlanderaren arnasmune geografikoa hizkuntza-mugek banatuko zuten. Halere, Bruselako inguruko eremuan hauskortasuna da nagusi.

Azken urteotako hainbat fenomenori aurre egiteko, Flandriak zenbait neurri hartu ditu hizkuntza-komunitatea txikitu ez dadin eta kanpotik datozenak linguistikoki integra daitezen. Horrela, etorri berriei nederlandera ikasteko eskatzen zaie, baldin eta oinarrizko soldata, laguntzak edota etxe merke bat alokatuko badute. Halaber, etxebizitza merkatu bortitzaren presioaren ondorioz, beste zenbait neurri hartu behar izan dute, kontuan hartuta hizkuntza-arnasmune horien konfigurazioa oso azkar aldatzen ari zela.

Horrela, nederlanderaren *language breathing space* edo arnasmunea babesteko eta sustatzeko hainbat neurri hartzen ari dira azken boladan. Tamalez, nahi baino gehiagotan auzitegiek ez dituzte onartzen, eta horrek hizkuntzaren garapenari eta arnasmuneen biziraupenari ez diote laguntzen.

GALES

I

Ikuspegi askotatik Galesek eta Euskal Herriak antzekotasun handiak dituzte. Antzeko hedadura, ezagutza-tasa ere EHn altuagoa izan arren, ez dago alde handia bien artean... Halere, Galesen hizkuntzaren lurralde-arnasmuneek hizkuntza-berreskurapen prozesuan duten garrantziaren kontzientzia aspaldikoa da.

Ingalaterrako Gobernuak hartutako erabakiak direla, Gales oporretarako gune bihurtu izana dela... Galeseko lurraldeak biziki pairatu

**Ikuspegi
askotatik
Galesek eta
Euskal Herriak
antzekotasun
handiak dituzte.**

**Oso entzunak
izan dira jabetza-
lege berezituen
aldeko aldarria
eta lurraren
erabilerarako
politiketan eta
planifikazioaren
aplikazioak
zehaztean galesa
ere kontuan
hartu beharreko
elementuen
hartzeko eskaera.**

ditu haien lurraldetatik kanpoko (Ingalaterrako) migrazio-mugimen-
duak eta horrek ondorio izugarriak izan ditu hiztun-komunitatean.
Hango gizarte eragile batzuen kanpainen leloek hori erakusten zuten:
Kolonizaziorik ez!, Gales ez dago salgai...

Oso entzunak izan dira jabetza-lege berezituen aldeko aldarria eta lu-
rraren erabilerarako politiketan eta planifikazioaren aplikazioak zehaztean
galesa ere kontuan hartu beharreko elementuen hartzeko eskaera.

Hori guztia gurekin partekatzea interesgarria zelakoan gonbidatu ge-
nuen Galeseko ordezkari eta hizkuntza-mugimenduetan buru-belarri da-
bilen Meirion Lylwelyn⁴, eta artikuluan islatzen denez, arnaguneen gaian
ere antzekotasun handiak bizi ditugu bi hizkuntza-komunitateok.

Ikuspegi historikoaren pare bat zertzelada jasotzearen, azpimarratu
beharko genuke seigarren mendean galesa Britania ia osoan hitz egiten
zen, Eskoziako Strathclyde barne (izena galesatik dator). Are gehiago,
Cumbriako zenbait artzainek ardiak galesez zenbatzen zituzten hogeig-
garren mendean. Halaber, galesa da idazten hasi izen Europako lehen
hizkuntzetako bat. Halere, 1282an Galesek independentzia galdu zuen
konkista militarren ondorioz.

Beste hainbat hizkuntzak bezalaxe, galesak ere jazarpena pairatu zuen
hizkuntza hegemonikoaren aldetik, eta gainera, orain dela hainbat mende
hasitakoa dela ondoriozta daiteke, kontuan hartuta besteak beste 1536an
Henry VIII.aren “Batasunaren Ituna” delakoa zeinaren arabera galeseraren
erabilera debekatu zuen administrazio publikoan eta justizian.

Industria-iraultzaren lehen olatua Galeseko landa-eremuetatik berriki
industrializatutako eremuetarako mugimendua izan zen. Industria-irault-
zaren hasierako urteetan industria-eremuetako hizkuntza galesa izan
zen. Halere, hemeretzigarren mendearen amaieran, mugaz bestaldeko
migrazio handiak eremu horietako hizkuntza-ohiturak aldatu zituen.

1911ko erroldak jaso zuen galesaren hiztun-kopururik handiena:
977.366. Halere, bertan ere jaso zen galesa, lehen aldiz, gutxiengoan
hizkuntza bihurtu zela, populazioaren %43,5ek hitz egiten zuelako. Ha-
lere, bada nire ustez datu interesgarri bat. Izan ere, Galesen egon izan
naizenean eta galesaren eta gaelikoaren arteko hiztun-kopuruaren aldeaz
galdetzen dudanean, behin baino gehiagotan erantzun bera izan dut:
Irlandan industria-iraultza ingelesez egin zen, eta Galesen galeseraz.
Hartara, industrializazioaren eragina askoz ere bortitzagoa izan zen ga-
elikoarekiko, galeserarekiko baino.

Galesaren gainbeherak bere horretan jarraitu zuen 1991ko erroldara
bitartean. 2001eko erroldak galesera ezagutzen eta erabiltzen dutenen
kopuruak zertxobait gora egin zuela jaso zuen.

Horrelakoetan ere, ez gaitu harritzen herri-gogoak edo herri-mugimenduak hizkuntzaren berreskurapenaren aldeko lanari ekitea. 1922an Urdd Gobaith Cymru, European dagoen umeen eta gazteen mugimendu handienetako sortu zen. 1939an galesaren lehen eskola pribatua sortu zen Aberystwyth hirian. 1942an Welsh Courts Act/Galeseko Auzitegi Legeak eskubide mugatu batzuk aitortu zituen galesa epaitegiaren aurrean erabili ahal izateko, lehen aldiz 1536 urtetik.

1947an Ysgol Gymraeg Llanelli galesaren bidezko murgiltze bidezko eskola zabaldu zuten. Hauxe izan zen osoki Hezkuntza Agintaritzaren mende zegoen galesaren murgiltze bidezko lehen eskola. Ia hamar urte beranduago Ysgol Glan Clwyd zabaldu zuten Rhyl herrian, bigarren hezkuntzako murgiltze-bidezko lehen eskola.

Interesgarria izan zen hirurogeigarren hamarkadan gertatutakoa, izan ere, Saunder Lewis idazleak bideratzen zuen ‘Tynged yr Iaith’ (hizkuntzaren patua) izeneko irati-programan galesa desagertuko zela aurreikusi zuen eta entzuleak eguneroko bizitzan eta modu ofizialean erabiltzera bultzatu zituen. Horren ondorioz, Cymdeithas yr Iaith Gymraeg (Galesaren Gizarte Mugimendua) eratu zen.

60. hamarkadaren amaieran Welsh Language Act/Galesaren Legea onartu zen eta, besteak beste, epaitegien aurrean testigantza galesez emateko eskubidea bermatu zuen, bai eta dokumentu ofizialak hizkuntza horretan jasotzeko ere.

1993ko Galesaren Legea beste aurrerapausu bat izan zen, Galesaren Batzorde Ofiziala sortu eta ingelesak zein galesak baldintza berdinak zituztela berretsi zuen. 2003an, Iaith Pawb, Galeseko Asanbladaren Gales Elebidunerako Plan Nazionala argitaratu zen, eta Asanblada Nazionalaren zeharkako onespena izan zuen.

Egia da, bai, nolabaiteko garapen juridikoa ere izan duela galesak. Halere, urte horietan guztietan hizkuntza-plangintzaren ikuspegitik jardun desegokiak eta hizkuntzaren garapenerako larriak gertatu ziren.

Esaterako, XIX. mendearen amaieran Ingalaterrako Gobernuak Galeseko hegoaldean kokatuta dagoen Elango harana itotzea erabaki zuen Birmingham uraz hornitu ahal izateko. Berrogeigarren hamarkadan Ingalaterrako Gobernuak Mynydd Epynten tiro-eremua eraikitzea erabaki zuen, eta 54 familiak etxebizitzak utzi behar izan zituzten. Ereiteko 40.000 akre lur kendu zieten eta Powys hegoaldean bizi zen azken gales-komunitatea suntsitu zuten. 1959an, aldiz, Ingalaterrako Gobernuak gales hiztuna zen beste haran bat itotzea erabaki zuen. Tryweryn harana ito zuten Liverpool uraz hornitzeko. Gainera, 1960tik aurrera eremu gales hiztunetan oporretarako etxeak arazo bihurtzen hasi ziren. Inga-

Irlandan industria-iraultza ingelesez egin zen, eta Galesen galeseraz.

**Nolabaiteko
garapen
juridikoa ere
izan duela
galesak. Halere,
urte horietan
guztietan
hizkuntza-
plangintzaren
ikuspegitik
jardun
desegokiak eta
hizkuntzaren
garapenerako
larriak gertatu
ziren.**

laterrako herritarrak Galesera bizitzera joan ziren eta horrek erabat desorekatu zituen egun bizirik zeuden lurralde-arnasguneak. Berrogeita hamar urteetan hainbat eremuk lurralde-arnasgune izateari utzi zioten. Horren arazo larriak herritarren nolabaiteko iraultza piztu zuen eta 1980-1993 bitartean Meibion Glyndwr's kanpainaren bidez 300 opor- etxe baino gehiago erre zituzten.

Horrekin batera hizkuntza-nazionalistek *Etxebizitza elkarteak* sortu zituen. Halere, hizkuntza ezin izan zuten ezarri puntuazio-irizpide gisa; izan ere, askotan Ingalaterratik etortzen ziren balizko maizterrek bazterkeria soziala pairatzen baitzuten. Gauzak horrela, Cymdeithas yr Iaith erakundeak "jabetza-lege" baten aldeko kanpaina egin zuen, arazoari garrantzia emateko eta Galeseko herritarrei etxebizitza-merkatuan aukera bat emateko. Lege horren arabera, plangintza-sistemek tokiko komunitatearen beharren arabera beharko lukete izan gizartean, ingurumenean eta hizkuntzan.

1988an presio politikoaren ondorioz, 53/88 zirkularra onartu zuten eta plangintza bat bideratu zuten. Horrela, lurraren erabilerarako politikan eta planifikazioaren aplikazioak zehaztean kontuan hartu beharreko elementuen artean galesa ere irizpide bihurtu zen, eta hori guztia Galesaren Bulegoa izeneko erakundearen bidez egin zen.

Dena den, halakoetan maiz gertatzen den bezala, zirkularra onartzeak ez zuen bermatu irizpide hori behar bezala kontuan hartuko zenik. Hartara, 2004an egindako azterketa baten arabera, 1998tik 2004ra arteko epealdian izandako apelazio-erabaki guztietatik 27tan besterik ez zen kontuan hartu hizkuntza galesa.

Horrek guztiak izan du bere kontrapuntua, izan ere, gertaera arrakastatsu eta interesgarri bat izan zen laurogeita hamarreko hamarkadan.

1990ean Borough Council-ek baztertu zuen Llangoed eremuko lurretan 59 etxebizitza egiteko baimena, besteak beste, bertako etxebizitzaren ezaugarriak kaltetuko zituztelako (hizkuntzari inolako erreferentziarik ez zioten egin). Arduradunak apelazioa aurkeztu zuen. Kontseiluak, Llangoed Babesteko Elkartearekin batera, frogak aurkeztu zituen herri horretako "galestartasuna" bere izaeraren ezaugarri nagusia zela on-dorioztatzeko. 1991n ikuskatzaile publikoak, ikerketa egin ostean, honako hau jaso zuen:

Llangoed Babesteko Elkarteak herria azken urteotan nola hazi den egiaztatu ahal izan du, bai eta bertan bizi direnen artean galesaren erabilera nola jaitsi den ere. Haien iritziz, 59 etxebizitzako eremu berri bat eraikitzea garapen oso azkarra litzateke Galeseko komunitate indigenarentzat, baldin eta haien bizimodua zein hizkuntza osasuntsu mantentzeko itxaropenari eutsi nahi

badiote. Egia da zerbitzuak maila horretako garapenera molda daitezkeela. Halere, bat egiten dut bertan bizi direnen kezkekin, hain zuzen ere, bertako komunitateak garapen hain handia horren azkar hartzeko izan dezakeen gaitasunarekin.

2002an Galeseko Asanblada Nazionalaren plangintza-politika kontuan hartua izan zen Galeseko Plangintza Politika nagusian. Aipatu plangintzak eskatu egiten zuen tokiko agintariak kontuan hartu behar zutela ea hizkuntza galesaren erabilerak eragina zuen ehundura sozialean. Halere, ez zen oso kontuan hartua izan.

2005ean, aldiz, Tokiko Erakundeek, Galesaren Hizkuntza Agintaritzaren, Etxe Eraikitzaileen Federazioaren eta Galeseko Asanblada Nazionalaren artean eratutako partzuergo batek afera horri behar bezala erantzuteko agindua jaso zuen. Horren, ondorioz, **hizkuntzaren eragina edo inpaktua ebaluatzeko markoa** definitu zuten.

Horrela, tokiko plangintzetan, planetan, proiektuetan edota programetan populazio-igoera etorriko bazen, horren hizkuntza-egoera jaso behar zen, eta bertan eragile linguistikoen ebaluazioa edo hizkuntzaren eta komunitatearen garapenean izan lezakeen ebaluazioa adierazi behar zuten.

Ondorioz, eragin linguistikorik ez izateko arintzeko neurriak ere zehaztu ziren, honako hauek, esaterako:

- Eraikiko diren eraikinak pixkanaka baztertu.
- Etxebizitza hornidura tokiko beharretara zuzendu (106. baldintza).
- Tokiko etxebizitza-errolan izena emana duten pertsonen esku jartzeko akordioak.
- Enplegua (txikizkako salmenta barne).
- Tokiko lanetan kontratuak.
- Tokiko gaitasunetan trebatzeko laguntzak.
- Establezimenduen barne eta kanpo-aldeetarako seinale elebidunak.
- Hizkuntza-harrerarako laguntza eta hizkuntza-eskolak.
- Adib. Hizkuntza-planak, murgiltze-unitateak.
- Komunitateetan hizkuntzaren erabilera sustatzeko proiektu / ekimen kulturaleri laguntza eta dirua.
- Tokiko ikastetxe galesetan eskolarako lanpostuak sortzeko laguntza.
- Hizkuntzaren eta kulturaren sensibilizaziorako ekimenei laguntza eta dirua.

Hizkuntza-plangintzatzaileek askotan ez dituzte ulertzen plangintzari buruzko kontuak, eta plangintzetan adituak direnek ez dituzte hizkuntzen aferak ulertzen. Soziolinguistikaren oinarriko ezagutzarik ez dute. Horretaz gain, hizkuntzaren alorrak ez du behar.

**Åland
Uhartean
lurraldetasun-
printzipioaren
ondoriozko
corpus
juridikoak
ahalbidetu du
hizkuntza
mantentzea eta
hegemoniko
izaten jarraitzea.**

Dena dela, 2011-2013 urteetan zehar hiru toki-agintarik besterik ez du bete Hizkuntza Ebaluazioa, hau da, 50.000 eskaeretatik 16k (%0,03).

Eraitza horiek ikusita, Plaid Cymru alderdi abertzaleak TAN20 ONE WALES ekimena aurkeztu zuen, hain zuzen ere, eroldaren emaitzek sortutako presio politikoengatik. Horren ondorioz, Tokiko Garapen Planen fasean hizkuntza-azterketak eta ebaluazioak egin beharko dira. Halere, oraindik garatu beharreko ebaluazio-tresna da, eta alde aurretik zehaztuta dago hizkuntzaren inguruko bakar-bakarrik ezin izango dela planik atzera bota.

Dena den, Tokiko Garapen Planekin arazo bat baino gehiago dago. Ingalaterran egoitza duen Plangintza Ikuskaritza erakundeak Galeseko Gobernuari, eta horren ondoren tokiko agintariei, emandako populazioaren hazkunde-datuak erabiltzen dira. Bestalde, hurrengo 20 urteetan 320.000 etxe berri izango dira Galesen; eta, azkenik, 2011ko eroldaren arabera Galeseko populazioaren hazkundearen %90 Ingalaterratik zetorren immigrazioari zegokion.

Gainera, hizkuntza-plangintzatzaileek askotan ez dituzte ulertzen plangintzari buruzko kontuak, eta plangintzetan adituak direnek ez dituzte hizkuntzen aferak ulertzen. Soziolinguistikaren oinarritzko eza-gutzarik ez dute. Horretaz gain, hizkuntzaren alorrak ez du behar besteko pisurik plangintza-prozesuetan eta borondate politiko eskasa dago. Eta, noski, Galeserako aurreikusten den etxebizitza-proiektuen kopurua oso handia da, eta Ingalaterran ez dute hori ulertzen.

Horren aurrean, gizarte-mugimenduetako ordezkari Meirion Llywelyn-ek zenbait gako aurkeztu zituen:

- Galeseko Plangintza Lege berria.
- Oporretarako etxebizitzetan %200eko zerga jartzea (honez gero, zenbait herri agintari hori ari dira galdetzen).
- Hizkuntzarentzako oinarri juridikoak.
- Hizkuntza-plangintzari buruzko aferetarako erakunde ofizial independentea ezarri beharko lukete edo Galesaren Komisarioari funtzio hori eman.
- Hizkuntzari pisu handiagoa eman beharko liokete sistemaren barruan.
- Toki agintariak bultzatu populazio zentralizatuen estimazioei aurre egiteko.
- Soziolinguistikaren eraginak sortutako kopuru txikiak justifikatzeko hizkuntza erabili.
- Tokiko eragileei lagundu tokiko garapen-planen kontrako borrokan.

ONDORIO MODUAN-EDO

I

Arnasguneak garatzeko eta hedatzeko hiru eredu oso desberdinak izan genituen hizpide Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldietan. Halere, horietako bakoitzak elementu interesgarriak dituela iruditzen zaigu.

Åland Uharteetan argi dago Suediaren botere politikoak eta suediarrek Finlandian duten boterea eragin handia dutela bertan onartu den araudian. Halere, elementu horiek kontuan hartu gabe, ondoriozta daiteke corpus juridiko egokia eta eragingarria jarri dutela abian eta horren ondorioz, irla horietan hizkuntzaren garapena ez dagoela inondik inora ere arriskuan. Hartara, lurraldetasun-printzipioaren ondoriozko corpus juridikoak ahalbidetu du hizkuntza mantentzea eta hegemoniko izaten jarraitzea.

Nederlanderari dagokionez, oso agerikoa da lurraldetasun- edota pertsonaltasun-printzipioa aplikatzearen araberakoa izan dela hizkuntzaren garapena. Hartara, pertsonaltasun-printzipioa aplikatzen den eremuetan teoriarik bi hizkuntzak berdintasunean erabiltzeko eskubidea aitortu arren, errealitatea oso bestelakoa dela ondoriozta daiteke. Nederlanderaren arnasgune den Flandrian, aldiz, beste garapen interesgarriagoa izan du hizkuntzak. Halere, lurralde horretako eremu batzuk oso hauskorak dira linguistikoki eta gutxiengoaren hizkuntza nagusitzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Bitxia da, kasu honetan, Åland Uharteetan ez bezala, nazioarteko erakunde zein auzitegiak, Europako Batzordeak edota NBEak, ez dituztela begi onez ikusten arnasguneen izaera mantentzeko onartu dituzten arauak. Ohartuko ginenez, Åland Uharteetan antzeko arauak edota arau ausartagoak hartu izan dituzte eta ez da egon nazioarteko salaketarik. Hemen ere beste behin azpimarratu behar dugu hizkuntza/boterea bikotearen eragina.

Galeseko kasuan agerian geratzen da plangintzen beharra. Gurean bezala, egun ez dugu koadro juridiko egokirik, baina horrek ez du esan nahi plangintza zehatzik ezin egin daitekeenik. Biziki interesgarria da prebentzio-gisa Galesen hartu izan dituzten neurriak, eta beraz, oso txalogarria eragin linguistikoa ebaluatzeko markoaren ideia. Halere, beste behin egiaztatu ahal izan dugu, plangintzak edo araudiak abian jartzea bezain garrantzitsuak direla horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak.

Euskaraz esan ohi dugu herri guztietan txakurrik oinutsik dabilzala. Egia da haien eta gure artean desberdintasun asko daudela, baina beharrak oso antzekoak: corpus juridiko egokia, komunitateak hartutako erabakietan kanpo-eskuhartzerik ez izatea, eta ebaluatuko diren zein

Nederlanderari dagokionez, oso agerikoa da lurraldetasun- edota pertsonaltasun-printzipioa aplikatzearen araberakoa izan dela hizkuntzaren garapena.

Galeseko kasuan agerian geratzen da plangintzen beharra.

epe/helburu zehatzeko plangintzak. Hain zuzen ere, Kontseiluak *Hizkuntza Politika Berri eta Eragingarria* proposamenean jasotzen dituen printzipio nagusiak. ●

OHARRAK

1 *Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea. I. Jardunaldiak* Donostian egin ziren 2014ko urtarrilaren 16an eta 17an, Kontseiluak antolatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta UEMArekin elkarlanean.

2 Jardunaldiko web gunean eskuragarri dago Elisabeth Nauc ler-ek emaniko hitzaldiaren testua.

3 Jardunaldiko web gunean eskuragarri dago Wilfried Vandaelek emaniko hitzaldiaren testua.

4 Jardunaldiko web gunean eskuragarri dago Meirion Llyvelyn Davies-ek emaniko hitzaldiaren testua.

ERREFERENTZIA

Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea. I. Jardunaldiak. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Gipuzkoako Foru Aldundia eta UEMA. <http://www.ueu.org/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/628/Lurraldea+eta+Hizkuntza.+Hizkuntza+eta+Lurraldea.+I.+jardunaldiak>.